

.FUNTSEZKO ELKARKETA

Gure bazkideen inguruko informazioa eskaintzeko, lehenik, gure forma juridikoa azaldu behar dogu. MakBaxerri S.M. garenez, sozietate mugatu bat gara.

Sozietatearen bazkideak, gu bostok gara, eta denok eskubide eta eskumen berdinak ditugu.

Bazkideok pertsona fisikoak gara eta erantzukizun mugatua dugu, hau da, enpresaren eta gizabanakoen ondasunak bereizten ditugu. Honela, enpresaren zorrak ez ditugu geure poltsikotik ordaindu behar. Enpresaren jabetza, partizipazioetan banatuta dago. Hauek ez dira negoziagarriak eta eskualdatzeko mugatuta daude. Modu honetan, enpresaren jabetza bermatzen dugu.

Sozietatea sortzeko behar ditugun 3000 euroak gure aitona Manuelen oinordetzatik hartuko ditugu.

Merkataritza-erregistroan erregistratuko gara eta bi organo izango ditugu sozietatea gobernatzeko: Batzar Orokorra, non eztabaidatu eta erabaki ahal izango dugun. Eta administratzaileena, enpresa kudeatzeko.

Hau dena jakinda, bezeroen nondik norakoak azalduko ditugu. Gu izango gara enpresaren bazkide bakarrak eta hau garrantzitsua da enpresa familiarra mantentzeko. Enpresari handi baten eskutan utziz gero, enpresaren gertutasunak eta giro failiarrak ez luke zentzurik izango.

Hornitzaileei dagokienez, enpresa liderra gara hornitzaileerik gabeko lehian. Gure produktu guztiak gure baratzetatik ateratzen ditugu: barazkiak, haragia gure abereena da, gazta erebai,sagardoa,... Gure hornitzaile bakarra Korrikolari enpresa da. Hark hornitzen gaitu beren freskagarriekin, gehien saltzen diren freskagarriekin.

Oso garrantzitsua da guretzako Korrikolarirekin dugun harramana. Gure eskaintzako elikagai gehienak baitira oso aproposak freskagarriarekn hartzeko, beraz, gure bezeroak erakartzen ditu. Ondorioz, gure diru iturri garrantzitsuenetik tiratzen du.

Bezero-hornitzaile harremanak estutu ditugu Korrikolarirekin hornikuntzen fidagarritasuna bermatzeko. Haiek guri beren produktuekin hornitzen gaituzte eta guk haiek eskatutako diru kopurua ematen diegu. Akordioaren bi aldeak ekonomia eremu berdinean aritzen garenez, ez du zentzurik akordioa ez betetzeak, harremana sinbiotikoa delako. Bataren arrakastak bestearena bultzatuko du eta abar. Adibidez guk sekulako arrakasta lortzen badugu, eskari handia edukiko dugu eta haiek hornitu beharko gaituzte, haien hazkundera lortzen. Eta alderantziz, haiek arrakasta lortu eta asko saltzean, produktu oso demandatua izango da eta geure jatetxera etorriko dira kontsumitzera.

Kapitala aztertuz gero (tresneria, sukalde altzariak, etxetresna elektrikoa,...), dena Goiegi Jatetxea zenarenetik hartu dugu oinordetzan. Jabea gure bazkide baten senidea izanik, ez dugu inolako hornikuntzarik behar izan aipatutako alorretan.

Funtsezko elkarketa egin dugu inguruko baserritar talde batekin. Herri lurak haiekin konpartituko ditugu negozio eredu optimizatzeke. Horrela, arrisku egoerak saihestuko ditugu eta ziurgabetasuna murriztuko dugu.